

Arratia 2020:

Iraunkortasunerako plan estrategikoa

Arratiako udalerriek iraunkortasunaren aldeko apustuari ekin zioten eta, horretarako, Tokiko Agenda 21en lehenengo Tokiko Ekintza Planak onartu zituzten. Herritarren partaidetza oso garrantzitsua izan zen. Guztiek ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen alderdiak hobetzerantz aurrera egiteko konpromisoa hartu zuten eta Iraunkortasunerantz UDALSAREA 21 Euskal Udalerrien Sareari atxiki zitzaizkion.

Plan horietan proposatutako ekintza asko Arratiako Udalen Mankomunitatearen aginpidekoak zirenez, berezkoa diseinatzen hastea pentsatu zen. 2012an Mankomunitateko Agenda 21en Ekintza Plana egiteari ekin zitzaion eta honako izena jarri ere bai: **“ARRATIA 2020 Arratiako Udalen Mankomunitatearen Iraunkortasunari buruzko Ekintza Plana”**.

“Arratiako Udalen Mankomunitateari zegokion Agenda 21en Ekintza Planaren Diagnostikoa” egin ondoren eta “Esku hartzeko lehentasuneko eremuak” zehaztu ostean, Ekintza Planaren zirriborroa egin zen eta horretan Mankomunitateko arlo eta zerbitzu guztiek parte hartu zuten. Eztabaidatu eta hausnartzeko hasierako dokumentua zen eta 2013. urtearen amaieran aurkeztu zuten.

Udalerriek alegazioak, iradokizunak eta proposamenak aurkezteko denboraldi bat eman


zen. Horiek guztiak behin betiko dokumentuan, 2014ko uztailean onartutakoan, kontuan hartu ziren.

“ARRATIA 2020 Arratiako Udalen Mankomunitateko Iraunkortasunari buruzko Ekintza Planak” helburu estrategikoak, helburu bereziak eta Mankomunitatearen aginpideko ekintzak nahiz jarduerak jasotzen ditu. Ondoren, lehentasunak ezarri, planifikatu eta garatu da. Mota desberdineko ekintzak daude: gizarte-ekintza, etxeko hondakinak gaika bildu eta kudeatzea, berdintasuna, energia-eraginkortasuna, Eskolako Agenda 21, ingurumen-iraunkortasuna, sentsibilizazioa, komunikazioa, gazteria, enplegua, etab.

Era berean, Mankomunitatearen barruan egingandako aurreko lan, azterlan eta hausnarketa estrategikoak, baita tokiko ekintza-plan desberdinen ikuspegiak, jomugak eta helburu orokorrak ere kontuan hartu dira.

2015. urtearen hasieran ekintza planaren lehenengo ebaluazioa burutu da eta emaitzak onak izan dira. Nolanahi ere, ezarpenaren lehenengo urtean betetze-maila %26an kokatu da.

Arratiako Udalen Mankomunitateko web orrian (www.ariatia.net) dokumentazioa kontsulta daiteke: diagnostikoa, ekintza-plana, ebaluazio-txostenak, etab.



Jarduera aipagarriak iraunkortasunean

- ▶ Arratiako Udalen Mankomunitateko Iraunkortasunari buruzko Ekintza Plana egin, onartu eta ebaluatzea: ARRATIA 2020 (2013-2014).
- ▶ Tokiko Ekintzak Planak ebaluatu eta jarraitzea (2011-2014).
- ▶ Hondakinak Prebenitzeko Kanpainak (2011 eta 2012).
- ▶ Edukiontzia marroia eta etxeko konpostajea ezarri eta sustatzeko kanpainak (2012, 2013 eta 2014).
- ▶ Eskolako Agenda 21en programak garatzea (2011-2014).
- ▶ Energia kudeatzeko urteko planak (2013 eta 2014).
- ▶ Energia-ikuskaritzak eta kanpoko herri-argien inbentarioa (2011).
- ▶ Gehien kontsumitzen duten udal-eraikinen energia-ikuskaritzak (2012).
- ▶ Udalaren energia-kontsumoak eta herri-argien mantentze-lanak jarraitzea, Udaletarako aldizkako txostenak egitea eta aholkularitza tekniko eskaintzea (2012-2014).



Irudian Josune Gorospe, Aitor Sorriketa eta Arratiako ikastetxeetako ordezkariak 2014-2015erako Tokiko Agendaren aurkezpenean. Bertan materia organikoaren zikloari buruzko aholkuak, jokoak eta azalpenak sartu ziren, gazteak kontzientziatzeko.

- ▶ Energia-eraginkortasunari buruzko proiektua eta proposamenak garatzea (2011-2014).
- ▶ Hondakin, energia, kontsumo iraunkor eta ingurumen-gaiekiko herritarren sentsibilizazioa (2011-2014).
- ▶ Eskualdeko komunikazio- eta informazio-tresnak garatzea (2012-2014).

Energia-kudeaketa eraginkorragoaren alde



Energia Eraginkortasunerako Bulegoa 2011. urtean eratu zen, eskualdeko udal-instalazioetan energia-iraunkortasuna sustatu eta Udal Energia Kudeatzailearen funtzioa onartzeko. Energiaren kudeaketa ulertzeko kontzeptu berriari esker, Arratian herri-argietan eta eraikinetan jada kontsumo elektrikoaren aurrezpen garrantzitsuak lortu dira.